

Zangoza / 2024

KULTUR AGENDA

martxoa



Ayuntamiento de
Sangüesa/Zangoza



CONSEJO REGULADOR DE LA CANTINERÍA
MUNICIPAL DE VALLESANTORO
PALACIO VALLESANTORO



Nafarroako
Gobernua



NAFARROAKO
ANTZOKI SAREA

Vallesantoro Jauregia / Kultura-Etxea



Kultura-zerbitzuko arreta ordutegia: astelehenetan 9:30etik 14:00etara eta asteartetik ostiralera 9:30etik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

Erakusketa Aretoko ordutegia: asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Larunbatetan 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

Helbidea: Alfontso Borrokalaria Karrika 20. **Tfnoa:** 948 870 251.

Kultura-agenda posta elektronikotik jaso nahi baduzu, helbide honetan eska dezakezu: infocultura@sanguesa.es

Facebooken eta www.sanguesacultura.es web-orrian gure kultura-agenda jarrai dezakezu: www.sanguesacultura.es

 www.facebook.com/culturasanguesa  www.instagram.com/culturasanguesa

Karmengo Entzunaretoa

Sarrerak hartzea: martxoaren 1etik aitzina Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, eta Internetetik www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web-orrien bidez. **Telefonoa:** 948 870 251.

Salmenta txartel-leihatilan antzezpen egunetan: Karmengo Entzunaretoko txartel-leihatila zabalik egonen da (sarrerarik izanez gero), ikuskizuna hasi baino ordubete lehenagotik. **Telefonoa:** 948 870 632

Ikuskizun guztietarako sarrera gehieneko kopurua 6koa izanen da lagun eta ikuskizun bakoitzeko. Ez dira onartuko telefonoz eginiko erreserbak. Behin hartuz gero, ez da aldaketarik, ezta itzultzerik ere onartuko

Ikuskikunaren etena sarreraren zenbatekoa itzultzeko kausa bakarria izango da.

Beharpenak Gazte txartelarekin: 14 eta 30 urte bitartekoa bazara, hala adierazten den saioetan beharpenez gozatu ahal izanen zara. Gazte txartela leihatilan aurkeztu beharko da entzunaretora sartzean.

ENTZUMENA HOBETZEKO ANTZERKI IRISGARRIA

Karmengo Entzunaretoak badauka begizta magnetikoko sistema bat inguruko hotsa kendu ahal izateko. Hartara, entzumen-arazoak dituzten lagunek ikuskizunez hobeki gozaten ahal dira. ERNE! sistema hau audiofonoa erabiltzen dutenek ez ezik ongi entzuten ez dutenek ere erabiltzen ahal dute inolako aparaturik eraman ez arren. Bi kasuetan entzungailua edo begizta aretoko langileei eskatu behar zaizkie.

ANTZERKI IRISGARRIA MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN LAGUNENDAKO

Karmengo Entzunaretoak mugikortasun murriztua duten lagunendako gune bat gordetzen du. Eserleku hauetako bat hartu behar bada edo erreserba hau egiteko laguntza behar baduzue, jarri harremanetan Kultura-zerbitzuarekin infocultura@sanguesa.es posta elektronikokoan edo deitu 948870251 telefonora.

Zangozako Udalak ez du bere gain ardurarik hartzen, aldatzen diren edo betetzen ez diren ekitaldiengatik, baldin eta hauek egitarau honetan ez badira aditzera eman.

Datuak babesteko legea honakoetan kontsultatzen ahal duzu: www.sanguesa.es

KULTUR
AGENDA

martxoa

aurkibide
kronologikoa

1 Os	Erakusketa «Óxidos» (martxoaren 3a bitarte)	4. Orr.
2 La	Antzerkia. «Simulacro»	5. Orr.
3 Ig	Antzerkia. «Soñando con Peer Gynt»	6. Orr.
4 Al	Musika Eskolako ikasleen kontzertuak	12. Orr.
5 As		
6 Az	Emakumearen Nazioarteko Eguna. Poesia eta musika. «Ovejas negras»	10. Orr.
7 Og	Erakusketa «Dibujos para alejar el fin del mundo» (apirilaren 7a bitarte)	4. Orr.
Og	Myriam Cameros artistarekin topaketa	4. Orr.
8 Os		4. Orr.
9 La	Emakumearen Nazioarteko Eguna. Dantza. «Coplas de Luna».	11. Orr.
10 Ig		
11 Al		
12 As	Musika Eskolako ikasleen kontzertuak	12. Orr.
13 Az	Ipuin kontalaria. «Liburu magikoa. Lolo Munstora eta Margarita Sorgina» (euskaraz)	9. Orr.
14 Og		
15 Os	Musika. Nafarroako Musika Eskoletako gitarra ikasleen elkarretaratzea	12. Orr.
16 La		
17 Ig		
18 Al		
19 As	Musika. Musika Eskolako konboen kontzertuak	12. Orr.
20 Az	Musika Eskolako ikasleen kontzertuak	12. Orr.
21 Og		
22 Os		
23 La	Antzerkia. «Nunca he estado en Dublín»	7. Orr.
24 Ig		
25 Al	Musika. Nora Abesbatzaren Aste Santuko kontzertua	12. Orr.
26 As	Ipuin kontalaria. «Lo que me encontré en un libro» (gazt.)	9. Orr.
27 Az		
28 Og		
29 Os		
30 La		
31 Ig		

APIRILA

4 Al	Musika. «Orquesta Sinfónica de Navarra»	8. Orr.
------	---	---------

Azaleko irudia: Myriam Cameros.

Erakusketak



«Óxidos»

Pintura eta eskultura

MARI ROS PRIETO

MARTXOAREN 3RA BITARTE

«Edertasuna maite dut bere oxido oskolarekin, esentzia barruan mantenduz.» L.M.R.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/
Kultura-etxeke Erakusketa Aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.



«Dibujos para alejar el fin del mundo»

Ilustrazioak eta eskultura

MYRIAM CAMEROS

MARTXOAREN 7TIK APIRILAREN 7RA

«Dibujos para alejar el fin del mundo» lanean egilearen unibertso intimo eta gogoetatsuenera hurbiltzen gara. Bere obrak beti izan zuen samurtasunaren eta salaketaren, ez-titasunaren eta borrokaren arteko oreka bitxi bat. Aukeraketa honetan, ilustrazio baten atzean dagoen prozesua ezagutzeko parada dugu, bere zirriborro gordinetatik, non hasierako emozioa horrelaxe jasotzen den, baita amaierako artea ere, obra erakusteko prest dagoela erabakitzeke hautapen-prozesu hori. Erakusketan Myriam Cameros Sierra ilustratzaile nafarraren marrazki eta pieza eskultoriko sorta zabala ikusi ahal izanen dugu, marrazkiaren eta ilustrazioaren munduan 20 urte baino gehiagoko ibilbidean zehar egin duena.



MYRIAM CAMEROS ARTISTAREKIN TOPAKETA

OSTEGUNEAN, MARTXOAK 7

Ordua: 19:00.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/
Kultura-etxeke Erakusketa Aretoa.

Erakusketa Aretoko bisita-ordutegia:

Asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Larunbatetan 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

Arte Eszenikoak Karmengo Entzunaretoan



ANTZERKIA

Sendaberi, paisaia eszeniko berriak
«Simulacro»

ION IRAIZOZ

LARUNBATEAN, MARTXOAK 2

Antzerkilariak: Ion Iraizoz y Gloria March.

Egile eta zuzendaria: Ion Iraizoz.

Bi pertsona ezezagunen arteko topaketa txikiak entseatzen ari dira, eguneroko bizitzako egoerak antzeratzen saiatzeko, egunerokotasunerako entrenamendua balitz bezala. Beren neurriera egindako mundu bat sortzen dute beren fikzio eta arauekin, beren buruaz eta giza izaeraz zerbait ulertzen saiatzearren.

Fikzioak gauzak edertzen ditu, telesail edo sare sozial batetik hasi eta erlijio edo utopia politikoetaraino. Fikzio orok epifania baten itxaropena ezkututzen du, ustekabeko zerbaitena, aldaketaren batena, horregatik behar dugu gure eguneroko fikzio dosi txikia. «Simulacro» lanean bi pertsonak beren fikzioa sortzen dute, beren nahiei erantzuten dien fikzioa, eta bizitza modu kontrolatuan gertatzen den simulakroen beren mundu txikian kokatzen dena, beren beharren neurriera egindako eskala batean.

Ikuskizuna amaitutakoan, nahi dutenek aktoreekin solasaldia izan dezakete.

Ikusleak: gazteak eta helduak.

Iraupena: 75 minutu.

Ordua: 19:30.

Aldez aurreko sarrerak: 6 €.

Txartel-leihatilan: 8 €.

Gazte Txartelarekin: 5 €. Beharrezkoa izanen da Gazte Txartela leihatilan aurkeztea, sarrera entzunaretoan bertan edo Internet bidez erosita ere.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) Elkarte eta Nafarroako Gobernua.

Arte Eszenikoak Karmengo Entzunaretoan



MUSIKA ETA FAMILIA ANTZERKIA

«Soñando con Peer Gynt».

Pianorako ikuskizuna, 4 eskutara.

PRODUCCION BELÉN OTXOTORENA

IGANDEAN, MARTXOAK 3

Dramagintza eta zuzendaritza: Belén Otxotorena.

Interpretatzaileak: Francesca Croccolino, piano-jotzailea; Silvia Sucunza/Diana Yerro, piano-jotzaileak; Belén Otxotorena, aktorea.

Istorio honetako protagonistek ideia zoragarria izan dute. Hilabete osoz lo egin nahi dute. Hartara, uda osoan esna egoteko eta gehien gustatzen zaiena eta gogo dutena egiteko aukera izanen dute. Baina egun argiz, ezinezkoa da lo egitea eta ardiak kontatzearena, oso pasatuta dago modaz: beraz, loak hartzen lagunduko dieten istorio dibertigarriak asmatzea erabaki dute.

«Soñando con Peer Gynt» Henrik Ibsen antzerkigile norvegiarraren eta Edward Grieg konpositore ospetsuaren obra haur eta familia publikoari ezagutarazteko eta, aldi berean, Tom Johnsonen musikaren eta istorioen alderdirik dibertigarri eta zentzugabeenak agerian uzteko helburua duen ikuskizuna da.

Ikusleak: sendiak eta haurrak. 5 urtetik aurrera gomendatzen da.

Iraupena: 60 minutu.

Ordua: 18:00.

Aldez aurreko sarrerak: 3 €.

Txartel-leihatilan: 5 €.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) Elkarte eta Nafarroako Gobernu.

Arte Eszenikoak Karmengo Entzunaretoan



ANTZERKIA

«**Nunca he estado en Dublín**»
LA TENTACIÓN PRODUCCIONES S.A.
LARUNBATEAN, MARTXOAK 23

Zuzendaria: Mireia Gabilondo.

Antzerkilariak: Iñigo Aranburu, Iñigo Azpitarte, Mireia Gabilondo eta Aitziber Garmendia.

«Nunca he estado en Dublín» besteen bizipen eta sinesmenen onarpenari buruzko komedia garratza da. Izan ere, pertsona bakoitzak bere errealitatea eraikitzen du, baina zenbateraino gara gai besteekin bizitzeko? Amesti familia Eguberri gau ospatzeko biltzen da, baina aurtengoa berezia da. Elena, alaba gazteena, Londrestik itzuliko da, hiru urtez kontakturik gabe egon ondoren, eta, azkenean, laurak elkarrekin egonen dira berriro. Baina ez dator bakarrik, Cindyrekin dator, bere neskalagun irlandarrarekin. Inork ez du imajinatzen Cindy pertsonaia ikusezina denik, Elenaren fantasia bat, familia honen oreka hauskorra hankaz gora jarriko duena, gonbidatu arrotz hau onartzearen edo errefusatzearen artean lehiatuz. Eldarniozko gau honetan bakoitzak bere fantasia eta miseriak azaleratuko ditu. Eta euren artean onartzeko zailtasunak izan arren, ikusiko dugu denek gauza bera bilatzen dutela: bizitzen lagunduko dien ilusio bat.

Ikusleak: gazteak eta helduak.

Iraupena: 90 minutu.

Ordua: 19:30.

Aldez aurreko sarrerak: 8 €.

Txartel-leihatilan: 10 €.

Gazte Txartelarekin: 5 €. Beharrezkoa izanzen da Gazte Txartela leihatilan aurkeztea, sarrera entzunaretoan bertan edo Internet bidez erosita ere.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) Elkarte eta Nafarroako Gobernua.

Arte Eszenikoak Karmengo Entzunaretoan



MUSIKA

NAFARROAKO ORKESTRA SINFONIKOA
OSTEGUNEAN, APIRILAK 4

Zuzendaria: José Luis López Antón.

PROGRAMA

Antonín Dvořák (1841 – 1904)
Opus 44, Antonin Dvoraken
RE minorreko serenata

- I. Moderato, quasi marcia
- II. Minuetto. Tempo di minuetto.
- III. Andante con moto
- IV. Finale. Allegro molto

Piotr Illich Tchaikovsky (1840 – 1893)
Opus 48, Piotr Illich Tchaikovskyren
soketarako Do maiorreko serenata

- I. Pezzo in forma di sonatina:
Andante non troppo – Allegro
moderato
- II. Valse: Moderato – Tempo di valse
- III. Élégie: Larghetto elegiaco
- IV. Finale: Andante – Allegro con
spirito

Ikusleak: gazteak eta heduek.

Iraupena: 60 minutu.

Ordua: 19:30.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Aldez aurreko sarrerak: 8 €.

Txartel-leihatilan: 10 €.

Gazte Txartelarekin: 5 €.

Laguntzaileak: Baluarte Fundazioa-
Nafarroako Orkestra Sinfonikoa eta
Nafarroako Gobernua.

Ipuin kontalariak



«Liburu Magikoa. Lolo Munstroa eta Margarita sorgina»

(Euskarazko ipuin kontalaria)

PRÓSPERO TEATRO

ASTEAZKENEAN, MARTXOAK 13

Txikitan, abandonatutako etxe batean sartu ondoren, gure ipuin kontalariak liburu magiko bat eskuratu zuen. Honen laguntzaz, Lolo ezagutuko dugu, ohe azpian bizi den munstro bat, haurren beldur dena, eta Margarita, gaiztakeriarik egiteko gai ez zen sorgina.

Iraupena: : 40 minut.



«Lo que me encontré en un libro»

(Gaztelaniazko ipuin kontalaria)

ADRIANA OLMEDO

ASTEARTEAN, MARTXOAK 26

Ongi etorri ipuinen Kale Nagusira, non jende liluragarri piloa bizi den bertan. Ate bakoitzaren atzean pertsonaia bat dago, eta ongi entzuten baduzu, oso istorio dibertigarria du kontatzeko. Ireki belarriak, egokitu begiak, luzatu behatzak liburu batean aurkitu nuen guztia harrapatu behar da eta.

Iraupena: 60 minutu.

Ikusleak: 3 eta 8 urte bitarteko umeak.

Adingabeei helduek lagundu behar diete.

Doako sarrera edukiera bete arte.

Ordua: 18:30.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeke Erabilera Anitzeko Aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzeko ekitaldiak



POESIA ETA MUSIKA

«Ovejas Negras»

ILUNA ANTZERKIA

ASTEAZKENEAN, MARTXOAK 6

Zuzendaria: Miguel Goikoetxandia.

Antzerkilariak: Raquel Sánchez, David Larrea, Miguel Goikoetxandia.

«Ovejas Negras» poesia feministako ikuskizun bat da, zuzeneko musikaz lagundua, eta emakumeek eginiko poesia hispanoamerikarraren ahots garrantzitsuenak biltzen dituenena. XX. eta XXI. mendeetan genero-arau eta estereotipoei aurre egin dizkieten emakumeak.

Ikuskizun honek literaturako «ardi beltzen» ahotsak ikusarazi nahi ditu, beren garaiko arau eta ohiturei jarraitu ez dietenak eta poesiaren bidez berdintasunaren eta justizia sozialaren alde borrokatu direnak. Honako hauen olerkiak: Dulce Chacón, Mere Echagüe, Gloria Fuertes, Dulce María Loinaz, Elvira Sastre, Guisela López, Jhoana Patiño, Rosa María Roffiel, Gioconda Belli, Ida Vitale, etab.

Ordua: 19:30.

Iraupena: 60 minutu.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/
Kultura-etxeke Erakusketa Aretoa.


Doako sarrera, martxoaren 1etik aurrera gonbidapena jaso ondoren. Sarrerak Kultura-etxean eskuratu ahal izanen dira, asteartetik ostiralera 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, 948 870 251 telefonora deituz edo infocultura@sanguesa.es

Antolatzailea: Zangozako Udalaren Kultura Zinegotzigoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernuua.



Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzeko ekitaldiak



DANTZA

«Coplas de Luna»

ARANTXA VILLANUEVA DANTZA KONPAINIA
LARUNBATEAN, MARTXOAK 9

Zuzendaria: Arantxa Villanueva.

Artisten zerrenda: Dantzaria: Arantxa Villanueva; Aktoreak: Marta Juárez eta Uxue Olazarán; Abeslaria: Lorena Jiménez.

Dantza, antzerki, zuzeneko musika eta ikus-entzunezkoen ikuskizuna, 4 eszenatan egituratua. Eszena bakoitzak deskribatzen du ilargiaren faseek protagonisten portaeran duten eragina. Ilargia bezalako begi handiko emakumeak, maite duten horretan erabat murgiltzeko gai direnak, bizitzaren jarraipenean beharrezkoak direnak, konplizitatearen espirituan eta emakumeen oroimenean itxitako misterioen ulermenean oinarritutako energiarekin. Ángeles Mastrettaren «Mujeres de ojos grandes» obran oinarrituta, testu horretatik Miguel Monarrizek pertsonaietako batzuk atera zituen eszenatoki batera eramateko.

Ordua: 19:30.

Iraupena: 75 minutu.

Ikusleak: gazteak eta helduak.

Aldez aurreko sarrerak: 8 €.

Txartel-leihatilan: 10 €

Gazte Txartelarekin: 5 €. Beharrezkoa izanen da Gazte Txartela leihatilan aurkeztea, sarrera entzunaretoan bertan edo Internet bidez erosita ere.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Antolatzailea: Zangozako Udalaren Gizarte Gaietarako Zinegotzigoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernuak.

Juan Francés de Iribarren Musika Eskola



Musika Eskolako ikasleen kontzertuak

**MARTXOAK 4, ASTELEHENA,
12, ASTEARTEA ETA 20, ASTEAZKENA**

Ordua: 19:30.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

**Nafarroako Musika Eskoletako gitarra
ikasleen elkarretaratzea**

MARTXOAK 15, OSTIRALA

Ordua: 19:00.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.



Musika Eskolako konboen kontzertuak

MARTXOAK 19, ASTEARTEA

Ordua: 19:30.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Zangozako talde kulturalen ektitaldiak



**Nora Abesbatzaren Aste Santuko
kontzertua**

MARTXOAK 25, ASTELEHENA

Ordua: 19:30.

Lekua: Santa Maria eliza.

Antolatzailea: Nora Abesbatza.